

Ordiziako Udala

2025ITGB0011

Ordizian, 2025ko ekainaren 26an, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día 26 de junio del 2025 se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión **Ordinaria** con la asistencia de las siguientes personas:*

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA

Adur Ezenarro Agirre (EH BILDU ORDIZIA)

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK

Maitane Alvarez Garciandia (EH BILDU ORDIZIA)

Ainhoa Jimenez Goñi (EH BILDU ORDIZIA)

Joseba Aranburu Ganzarain (EAJ-PNV)

Julen Iraola Matxain (ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS)

Ana M^a Sanchez Herraiz (GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK

AZTERTUTAKO GAIAK

ASUNTOS TRATADOS

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:

- 1.- 2025eko ekainaren 5eko ohiko bilkurako akta zirriborroa onartzea
- 2.- Gipuzkoako Urakekin hitzarmena
- 3.- Jaietako Egitarauen zirriborroa
- 4.- Kontratu txikien kontu ematea
- 5.- Maiatzeko kudeaketa txostena
- 6.- Maiatzeko ordainketak
- 7.- Zenbait txosten eta eskaera
- 8.- Galde-eskeak

- 1.- Aprobación del borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 5 de junio del 2025
- 2.- Convenio con el Consorcio de Aguas
- 3.- Borrador programa de fiestas
- 4.- Dar cuenta de los contratos menores
- 5.- Informes de gestión del mes
- 6.- Pagos mes de mayo
- 7.- Informes y solicitudes varias
- 8.- Ruegos y preguntas.



Ordiziako Udala

2025ITGB0011


GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 16:34etan

AMAIERA ORDUA:17:39 etan





Ordiziako Udala

2025ITGB0011

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.-2025eko ekainaren 5eko bilkurako akta onartzea.

Mahai gainean geratzen da eta hurrengo bilkuran onartuko da.

A continuación, el alcalde da cuenta del primer punto del orden del día:

1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 5 de junio del 2025

Queda encima de la mesa, y se aprobará en la siguiente sesión de Junta



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du

2.- Gipuzkoako Urakekin hitzarmena

Proposamena

Aurkeztu da Gipuzkoako Urakekin ur ziklo integralaren kudeaketa gomendioa erregulatzen duen hitzarmenaren zirriborroa. Adostu nahi da denon artean hitzarmena, ondoren Gipuzkoako Urari igortzeko.

Eranskinetan informazio oro jaso da, eta banaka-banaka eranskinetan sartutakoa adierazten du alkateak. VI. Eranskin berriaren inguruko informazioa ere adierazten da (zentraleko biltegiaren inguruko zehaztapenak).

Eskatutako mantenuko klausula sartu da, eta azaltzen dira barneratu diren klausula berriak ere.

Zuzenketak egin ditugu eta adosteko ekarri dugu, nahiz eta gaur ez den onartuko, ondoren udalbatzara igorriko da. Berez, asmoa da, uztailaren 17ko udalbatzan onartzeko igortzea.

2.- Convenio con el Consorcio de Aguas


Propuesta

Se presenta el borrador del convenio que regula la encomienda de gestión del ciclo integral de agua con el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa. Se pretende consensuar entre todos el convenio para su posterior remisión al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

En los anexos se recoge toda la información, y de uno en uno el alcalde indica el contenido de los anexos. También se indica la información relativa al nuevo anexo VI (especificaciones del almacén de la central).

Se incluye la cláusula de mantenimiento solicitada y se han incorporado las nuevas cláusulas.

Hemos efectuado las correcciones oportunas y lo presentamos para consensuar, aunque hoy no se va a aprobar, después se remitirá al pleno municipal para su aprobación. La intención es remitirla para su aprobación en el Pleno del 17 de julio.



Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Joseba Aranburuk honakoa adierazten du: ondo dagoela deritzogu, baina kezka sortzen dit aurrez ezarri duzun plano horretan sarrera erditik egiten dutela jartzen baitu.

Alkateak adierazten du, uztailak 17 baino lehen plano berregituratu eta egoki definituko dugu, eta sarrerak ondo markatuko ditugu (sarrera independentea ere markatu egingo dugu).

Joseba Aranburuk adierazten du 21. orrialdean 15 urterako lagapena dela jartzen duela, eta ondoren, 12. orrialdean, aldiz, 10 urterako dela jartzen du. 12. orrialdean ere ezartzen du: "sus competencias si se gestionan directamente como a través del concesiones". Beraz, del hori zuzentzea eskatzen da.

Julen Iraolak proposamen hau egiten du: lurrazpian lurperatzen dituzten fibrozementuzko hodei horiek lurperatu beharrean kendu egingo dituztela adieraztea hitzarmenean. Gehienbat "víctima medio ambiental" kontzeptua ere hor da, eta ez dakigunez nola desegingo diren fibrozementu horiek, posible litzateke horri buelta bat ematea.

Bestalde, interesgarria litzateke mantenuko puntuetan jasotzea atentzio berezia ezarriko dela fugetan. Adierazi izan da neurketa bat egiten dela zenbat ur sartzen den Ordiziako ur sarean eta

Debate

Abiertos los turnos de intervención por el alcalde, han sido los que se enumeran brevemente a continuación:


Joseba Aranburu señala: «Creemos que está bien, pero me preocupa porque en ese plano que has presentado pone que efectúan la entrada por la mitad.

El alcalde indica que «antes del 17 de julio reestructuraremos el plano y lo definiremos adecuadamente y marcaremos bien las entradas (marcaremos también la entrada independiente).

Joseba Aranburu indica que en la página 21 dice que es una cesión para 15 años y en la página 12 que es para 10 años. En la página 12 se establece lo siguiente: "sus competencias si se gestionan directamente como a través del concesiones". Se solicita se rectifique ese "del".

Julen Iraola hace esta propuesta: «Señalar en el convenio que en lugar de sepultar esos tubos de fibrocemento que entierran en el subsuelo, indicar que van a retirar esas instalaciones obsoletas. Atendiendo a ese concepto que existe de "víctima medio ambiental", y como no sabemos cómo se van a deshacer esos fibrocementos, sería posible darle una vuelta al tema.

Por otro lado, sería interesante recoger en los puntos de mantenimiento que se va a establecer una atención especial en fugas. Se ha señalado que se realiza una medición de la cantidad de agua que entra en la red de agua de Ordizia y la cantidad de agua



Ordiziako Udala

zenbat ur ateratzen den. Orduan, efizientzia hori lortze aldera, atentzio berezi bat jartzea deskoadre handi bat izan delako eta fuga eman delako.

Alkateak erantzuten du honakoa: ez dakit urteko txostenetan, baina Gipuzkoako Urak-ek sare osoko txostena egiten du, eta kalkulaturik daude sartu irteeren fugak. Azken urteetan, uste dut estatu mailan efizientzia altuenetako sarea dela. Hitzarmenean agian sar daiteke urtero egiten duten txosten horretan sarearen inguruko efizientzia ere zehaztu behar dutela.

Julen Iraolak honakoa dio: ea hitzarmenean barnera daitekeen Ordiziaren autohornikuntzarako edo erresilientzia etorkizunerako garrantzizkoak diren instalakuntzak laga badira, eta kudeaketa gomendioa amaitzean itzuli egin behar badira, mantenu berezia egingo zaiela instalakuntza horiei. Horrela udalari egoki itzuliko zaizkio instalakuntza horiek.

Alkateak erantzuten du: galdetuko dugu, baina hor gertatzen da sarea lagatzen dela, eta beraiek kudeatzen dutela, eta ez dago mekanismorik ezarrita. Horregatik tematu naiz hitzarmena sinatzerako sarearen plano guztiak eranskin bezala jasotzek. Zeren erabiltzeari uzten zaien instalakuntzekin zer egin ez dago argi. Hor erresilientziari begira badaude iturburuarenak direnak, eta horiek Konfederazio Hidrografikoarenak dira eta bertan behera utzi dizkigu. Nahiko konplexua da gaia. Ea aurrerago zer gertatzen den, eta ea aldaketa klimatikoak ere zer dakarkigun, eta ez dakit urte batzuetara kaptazio horiek


2025ITGB0011

que sale. Entonces, para conseguir esa eficiencia, poner una atención especial en los casos de fuga y atender a porqué ha sido ese gran descuadre y porqué se ha dado la fuga.

El alcalde responde: «No sé si en los informes anuales consta, pero Gipuzkoako Urak elabora un informe de toda la red y están calculadas las fugas de las salidas y entradas. En los últimos años, creo que a nivel estatal es una de las redes de más alta eficiencia. El convenio puede incluir la necesidad de que en el informe anual que elaboran se especifique también la eficiencia de la red.

Julen Iraola dice: «A ver si se puede incluir en el convenio que, si se han cedido instalaciones importantes para el autoabastecimiento de Ordizia o para el futuro de la resiliencia, y tienen que ser devueltas al finalizar la encomienda de gestión, se hará un mantenimiento especial de dichas instalaciones. De esta forma se procederá a la adecuada devolución de dichas instalaciones al Ayuntamiento.

El alcalde responde: «Preguntaremos, pero ahí ocurre que se cede la red, y ellos la gestionan, y no hay mecanismos establecidos». Por eso me he empeñado en que todos los planos de la red para la firma del convenio se recojan como anexos. Porque no está claro qué hacer con las instalaciones que se dejan de utilizar. Ahí de cara a la resiliencia hay instalaciones de manantial, y esos pertenecen a la Confederación Hidrográfica y actualmente han dejado abandonadas esas instalaciones. El tema es bastante complejo. A ver qué pasa más adelante, y qué nos depara también el cambio climático, y no sé si dentro de unos años no tendríamos que recuperar esas captaciones. Pero también intentaremos introducir algo sobre las



berreskuratu beharko ez genituzkeen. Baina lagapenen inguruan ere zerbait sartzen saiatuko gara.

cesiones.

Bestalde, fibrozementuari dagokionez, egia da kontra dugula legea. Osalan edo osasun protokolo denek onartzen dute enkapsulatu bidez egitea, baina niri ere kezka eragiten dit. Zeren berdin dit, gu ez garenean egongo, gure hurrengo belaunaldientzat hor uzten baikabiltza. Eta auzo horren eraberritzea egitea dagokionean, hor egongo da. Eta nahiz eta esaten den kutsatzen duenak ordaintzen duela, ez da horrela, eta San Joanen gertatu zitzaigun. Iberdrolak ordaindu beharrean, urbanizazio karga bezala ordaindu behar izan zen, epaitegian galdu egin baikenuen.

Por otro lado, en cuanto al fibrocemento, es cierto que no nos ampara la ley. Osalan o todos los protocolos sanitarios aceptan hacerlo mediante encapsulado, pero a mí también me preocupa. Porque me da igual, cuando no estemos nosotros, quedará así para nuestras próximas generaciones. Y cuando corresponda hacer la reforma de ese barrio, ahí estará. Y aunque se dice que quien contamina paga, no es así, y nos pasó en San Juan. En vez de pagar Iberdrola, hubo que pagar como carga de urbanización, y así fue porque perdimos el recurso interpuesto en el juzgado.

Beraz kontu ematen da eta Tokiko Gobernu Batzordea jakinaren gainean geratzen da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du

3.- Jaietako Egitarauaren zirriborroa

3.- Borrador Programa de Fiestas

Alkateak adierazten du honakoa: bizikidetzan hitz egin dugu, eta zirriborroa ekarri dizuegu. Txosnetako egitaraua bereizita joango da.

El alcalde señala lo siguiente: «Hemos tratado el tema en convivencia y os hemos traído el borrador. El programa de las txosnas irá por separado.

Egitarauaren hasieran koka lekuak zehazteko plano txertatuko da.


Al inicio del programa se incluirá el plano de definición de los lugares de localización.

Programaren garbiketa eta arazketa egin da, esaldiak ulerkorragoak izan daitezen eta piktogramak ere erabili ditugu. elebitan joango da.

Se ha realizado la limpieza y depuración del programa para que las frases sean más comprensivas y también se han utilizado pictogramas. Se presenta y entrega en bilingüe.

Bestalde, gaur Santanazaleekin bilera dago soka-dantzari dauden paper protagonista horiek hautatzerako orduan

Por otro lado, hoy hay una reunión con los Santaneros para introducir criterios a la hora de seleccionar esos papeles protagonistas



Ordiziako Udala

2025ITGB0011

irizpide batzuk txertatzeko. Duela 500 urteko ohituren arabera egin izan da, eta genero arteko bereizketa gainditu dugun bezala, oraindik ere irizpide batzuk ditugu ordiziaritasun hori zehazterako orduan. Nahiko elitista izan daitekeenez, egokitu edo eguneratzeko eskaera egin digute. Ane Lekuona, Patxi Mendibar dantza irakasleak ibili dira gaia jorratzen, eta Udalbatzak onartzeko eskaera egin digute. Uztailak 17an egingo den Udalbatzara eramango dira irizpideak, bertan onartuak izan daitezen.

de la soka-dantza. Hasta ahora, se ha efectuado según las costumbres de hace 500 años, y de la misma manera que hemos superado la distinción entre géneros, todavía tenemos algunos criterios a la hora de definir ese concepto de ordiziarra, criterios que hoy en día pueden resultar bastante elitistas, por ello nos han pedido adaptarlos o actualizarlos. Ane Lekuona, Patxi Mendibar, profesores de danza, nos han solicitado se efectuó la aprobación de la modificación de criterios por el Pleno. Los criterios se trasladarán al Pleno que se celebrará el 17 de julio para que sean aprobados en el mismo.

Joseba Aranburuk adierazten du bere alderdiari ondo iruditzen zaiola

Joseba Aranburu manifiesta que a su partido le parece bien.

Julen Iraolak honakoa galdetzen du: klasikan Israelek parte hartuko du?

Julen Iraola pregunta: «¿En la clásica participará Israel?»

Alkateak erantzuten dio Jon Anderri galdetuko diotela, ea Israelek parte hartzeko eskaera egin duen.

El alcalde le responde que le preguntarán a Jon Ander si Israel ha solicitado su participación.

Ana Sanchezek honakoa adierazten du: txosnetako egitaraua igortzeko eskaera egiten du, eta galdetzen du ea 2 egitarauak une desberdinetan iritxi araziko diren etxeetara.

Ana Sánchez manifiesta: «Solicita la remisión del programa de txosnas y pregunta si los 2 programas se harán llegar a las casas en diferentes momentos.


Alkateak baiezkota erantzuten du.

El alcalde contesta afirmativamente

Beraz Tokiko Gobernu Batzordea jakinaren gainean geratu da



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



Ordiziako Udala

2025ITGB0011

4.- Kontratu txikien kontu ematea

4.- Dación de cuenta de contratos menores

2025/1028. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

Ordiziako Udalean hainbat xederi aurre egiteko ondoren zehazten diren kontratu txikiak izapidetzeko beharra ikusi dela eta hauek behar bezala justifikatu direla.


Aplikagarriak diren “21/2003 Foru Araua , abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa” eta “9/2017 Legea azaroaren 8koa Sektore Publikoko Kontratuena” kontuan izanda.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean eta horrekin bat egonik,

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

Lehen.- Ondoko taulan zehazten diren gastuak onartzea eta hirugarren hauei esleitzea:


Espediente	Zenbatekoa	BEZaren zenbatekoa	KES I kod.	Hirugarrena	NA - IFZ	Xedea
2025-ESKA-000259-00	1.25 5,86	263,73	66 62	ION SIMON, S.L	B75 2252 19	Barrena parkeko zuloa porexpanarekin betetzeko kontratua
2025-ESKA-000294-00	1.00 0,00	0,00	81 70	EUSKAL ARDI MOZTAILEEN ELKARTEA, EAME	G75 2797 29	Artzain egunean ardi ile mozketaren erakustaldia egitea
2025-ESKA-000296-00	2.80 0,00	0,00	22 72	CLUB LAZKAOMENDI HIPICO	G20 5988 35	Ordiziako jai nagusietako haurren danborradarako zaldiak kontratatzea du helburu kontratu honek
2025-ESKA-000297-00	3.50 0,00	0,00	22 72	CLUB LAZKAOMENDI HIPICO	G20 5988 35	Ordiziako jai nagusietako helduen danborradarako zaldiak kontratatzea du helburu kontratu honek
2025-ESKA-000298-00	1.30 4,80	0,00	62 12	TICALA, ANGELA	X89 5164 3C	Ekainaren 7an luntxa egitea



Ordiziako Udala

2025ITGB0011

2025-ESKA-000299-00	1.25 4,04	263,35	43 47	NUÑEZ ETXEBERRIA, JOXEMARI - ITZULIZ	7243 3918 H	"1925: Duela ehun urteko istorioak" artikulua itzulpena
2025-ESKA-000300-00	419, 04	88,00	99	MINGO ROJO, AMAIA	7243 3690 C	Gaztelekua erabiltzen duten udal zerbitzuek erabili beharreko garbiketa-materiala erostea.
2025-ESKA-000301-00	13.7 00,0 0	2.877,00	66 62	ION SIMON, S.L	B75 2252 19	Brigadaren pabilioian izandako sutearen ondorioz egin beharreko pintaketan lanen kontratazioa
2025-ESKA-000302-00	1.39 0,00	291,90	23 13	GOISYSTEM APLICACIONES INFORMATICAS S.L.	B20 5189 57	Komunikazio sailerako kamara berria erostea, materiala sortu ahal izateko
2025-ESKA-000303-00	12.8 00,0 0	2.688,00	79 61	PKF ATTEST SERVICIOS EMPRESARIALES S.L.	B95 2212 71	Majori Kiroldagiko gastuen igoeraren nondik norakoak zehazteko azterketa ekonomikoa
2025-ESKA-000304-00	211, 20	44,35	73 4	HIDALGO ECENARRO, SLL	B20 6085 27	AZATXO TOPALETAREN TROFEOAK
2025-ESKA-000305-00	5.00 0,00	0,00	49 59	AMETS BIDE KULTUR ELKARTEA	G75 0241 25	Maiatzaren 23tik 25era "Ordiziako dantza aste burua" antolatzea
2025-ESKA-000306-00	5.07 1,50	1.065,02	64 68	MURBIDECOR URBANO S.L	B95 3672 80	Barrena parkeko babeseko segurtasuneko lurra hornitzea
2025-ESKA-000307-00	14.8 50,0 0	3.118,50	46 32	ENDARA INGENIEROS ASOCIADOS, S.L.	B20 7602 60	Bizkaia pasealekuan bide gorria eraikitze lanen obra zuzendaritza
2025-ESKA-000308-00	966, 03	202,87	88 6	CARRION MONTERO, ROSA MARIA	1597 2032 G	Gaztelekuko sukalde berrirako tresnak erostea, lokala erabiltzen duten udal zerbitzuek erabili beharrekoak.
2025-ESKA-000310-00	500, 00	0,00	52 49	RODRIGUEZ FERNANDEZ,MARTA MARTA ART	7245 2996 Y	Ordiziako Haur Txokoa arte tailerrak egiteko materiala erostea.
2025-ESKA-000311-00	1.20 0,00	252,00	69 01	SEGURTASUNA KOORDINAZIOAK, S.L.	B75 2227 86	URDANETAKO SABAIEN OBRA DELA ETA SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILEA KONTRATATZEA



Ordiziako Udala

2025ITGB0011

2025-ESKA-000312-00	3.00 0,00	630,00	56 11	FEDERACION MERCANTIL DE GIPUZKOA	G20 0459 93	Saltokien berezitasuna eta lehiakortasuna hobetzeko ekintza plana.
---------------------	--------------	--------	----------	-------------------------------------	-------------------	--

2025/1066. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

Ordiziako Udalean hainbat xederi aurre egiteko ondoren zehazten diren kontratu txikiak izapidetzeko beharra ikusi dela eta hauek behar bezala justifikatu direla.


Aplikagarriak diren “21/2003 Foru Araua , abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa” eta “9/2017 Legea azaroaren 8koa Sektore Publikoko Kontratuena” kontuan izanda.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean eta horrekin bat egonik,

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

Lehena.- Ondoko taulan zehazten diren gastuak onartzea eta hirugarren hauei esleitzea:

Espedientea	Zenbatekoa	BEZaren zenbatekoa	Hirugarrena	NA - IFZ	Xedea
2025-ESKA-000258-00	2.39 0,00	501,90	LURKOI APL. TEC. DE LA MADERA S.L.	B205 6972 9	Barrena parkeko zoruko materialaren hondakinen kudeaketa
2025-ESKA-000309-00	390, 00	0,00	RODRIGUEZ FERNANDEZ,MARTA -MARTA ART	7245 2996 Y	Gaztelekuan birziklatzeari buruzko tailer bat egitea gazteekin, material bat, armairua, berrerabiltzeko.
2025-ESKA-000313-00	2.71 0,00	569,10	LANKU BERTSO ZERBITZUAK, S.L.	B208 1069 3	uztailaren 23an, Klown bertso saioa egitea
2025-ESKA-000314-00	1.40 0,00	0,00	URRATSA ELKARTEA	G311 3843 1	DANTZA animazioaren emanaldia egitea PIKO



Ordiziako Udala

2025ITGB0011

2025-ESKA-000316-00	4.23 4,34	0,00	SOCIEDAD PELOTAZALE JAI-ALAI	G202 0492 1	2024ko Santa Ana eta Euskal jaietako pilota partiden antolaketaerakunde
2025-ESKA-000317-00	1.41 6,10	297,38	IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	B201 9067 4	OIANGUKO KOMUN PUBLIKOAK JARTZEKO GARRAIOA, ETA ITURGINTZAKO, SANEAMENDUKO ETA ELEKTRIZITATE INSTALAKUNTZA BURUTZEA
2025-ESKA-000318-00	3.90 0,00	819,00	NAVALPOTRO MALCORRA, AINHOA	4414 4783 D	BONBERIAN ARMEROA ERAIKITZEKO GAUZATZE PROIEKTUA ETA OBRA ZUZENDARITZA
2025-ESKA-000319-00	575, 00	120,75	MAGMAMIA S. KOOP. ELK. TXIKIA	F568 0450 3	Ordiziako Udalak Jabekuntza Eskolako ikasturte itxierako jai-topaketa dinamizatzeko MAGMA MIA kooperatiba elkarte txikiaren zerbitzua kontratatu du.
2025-ESKA-000320-00	1.15 0,00	241,50	GOIHERRIKO IKUSKARI, S.L.	B208 0684 0	Ordiziako plazaren mendeurrena dela eta saio berezia egitea plazan
2025-ESKA-000321-00	575, 00	120,75	TELLERÍA LARRAMENDI, ANA BELÉN - ZUMARDI	7245 0595 C	Ordiziako azokaren 100. urteurrena dela eta pintxopoterako palilloak sortu izana
2025-ESKA-000322-00	4.00 0,00	840,00	TU OFICINA AL DIA SLU	B015 8427 5	IDC Wintime presentzi kontrolerako software-a kudeatzea 2025
2025-ESKA-000324-00	1.10 5,20	232,09	IZT KOOP.E.	F208 6905 3	Udaltzaingoaren ordenagailuaren aldaketa

2025/1110. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

Ordiziako Udalean hainbat xederi aurre egiteko ondoren zehazten diren kontratu txikiak izapidetzeko beharra ikusi dela eta hauek behar bezala justifikatu direla.


Aplikagarriak diren “21/2003 Foru Araua , abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa” eta “9/2017 Legea azaroaren 8koa Sektore Publikoko Kontratuena” kontuan izanda.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean eta horrekin bat egonik,

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

Lehena.- Ondoko taulan zehazten diren gastuak onartzea eta hirugarren hauei esleitzea:

Espedientea	Zenbatekoa	BEZaren zenbatekoa	Hirugarrena	NA - IFZ	Xedea
2025-ESKA-000236-00	3.057,00	641,97	E.S. LAZKAO, S.L.	B20608659	ERREGAIK UDALTZAINGOA -
2025-ESKA-000323-00	2.670,00	0,00	ASOC MUSICAL RECREATIVA LASARTE MUSIKAL	G75223479	Jai Nagusietan Matutina + kale jira egiteko txaranga kontratatzea
2025-ESKA-000325-00	14.250,00	2.992,50	BAKETIK FUNDAZIOA.	G20907259	Bizikidetza Lantzen proiektua
2025-ESKA-000327-00	647,50	135,98	TANDEM KOMUNIKAZIOA	B20992004	MARIARATS PASEALEKURAKO EUSKARRI INFORMATIBOA (BIODIBERTSITATEA)
2025-ESKA-000328-00	3.000,00	0,00	AMETS BIDE KULTUR ELKARTEA	G75024125	Festetan dantzaren inguruan egingo diren ekintzak antolatzea
2025-ESKA-000329-00	485,64	101,98	NUÑEZ ETXEBERRIA, JOXEMARI - ITZULIZ	72433918H	Visesa hitzarmenaren itzulpena



Ordiziako Udala

2025ITGB0011

2025-ESKA-000330-00	900,00	189,00	SEI SOINUA S.L.U.	B750 8086 1	San Juan Suaren ekitaldirako soinu ekipoa kontratatzea
2025-ESKA-000331-00	3.300,00	693,00	HOGUITABI SERVICIOS INFORMATICOS, S.L.	B750 2110 5	Euskal Jailetako asteazkeneko gazta txapelketako enkatereen kudeaketa
2025-ESKA-000332-00	325,00	68,25	IMAUDIO - ALBERTO INZA MIHURA	1599 1145 G	Ekainaren 20ean egingo den musika eskolaren kontzertutako soinu ekipoa kontratatzea
2025-ESKA-000333-00	159,00	33,39	RETAMOSA MÍNGUEZ, MARCOS	7889 3610 E	TROFEOAK ORDIZIAKO MEETING ETA URREZKO AZA
2025-ESKA-000334-00	255,00	53,55	LECUONA FERNANDEZ DE RETANA, M. EUGENIA	7243 8112 A	DISEINUA TROFEOAK ETA URREZKO AZA (MEETING ORDIZIA)
2025-ESKA-000335-00	2.800,00	588,00	TIC TAK IKUSKIZUNAK	B319 0975 7	Uztailaren 24rako Rockalean enkalaldia kontratatzea
2025-ESKA-000336-00	11.200,00	2.352,00	TIC TAK IKUSKIZUNAK	B319 0975 7	Uztailaren 27rako Enkalaldia kontratatzea

Beraz Tokiko Gobernu Batzordea jakinarean gainean geratzen da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

:

5.- Maiatzeko kudeaketa txostenak


5.- Informes de gestión del mes de mayo

Maiatzeko kudeaketen txostenen berri ematen da 2025A0010009 eta 2025A0010008.

Se da cuenta de los informes de gestión del mes de mayo 2005A0010009 y 2025A0010008

Beraz Tokiko Gobernu Batzordea jakinarean gainean geratzen da.





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du::

6.- Maiatzeko ordainketak

6.- Pagos de mayo .

Maiatzeko ordainketen berri ematen da

Se da cuenta de los pagos efectuados en el mes de mayo

Beraz Tokiko Gobernu Batzordea jakinaren gainean geratzen da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du::

7.- Zenbait txosten eta eskaera

7.- Informes y solicitudes varias.

Alkateak adierazten du zerbait eskatu nahi bada igorritako dokumentuen inguruan, adierazteko, edo bestela galde-erreguetan adierazten daitezkeela.

El alcalde indica que si se quiere solicitar algo sobre los documentos remitidos se pueden hacer constar en ruegos y preguntas

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

A continuación, el alcalde da cuenta del siguiente punto del orden del día:



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du::

8.- Galde-erreguak


8.- Ruegos y preguntas.

Joseba Aranburuk honako adierazten du: antolaketaren kudeaketa txostenean, grafikan, aurrekontuen kontrolaren inguruko eta diru sarreraren gauzatzearen kontrolaren datuetan jartzen du 22 milioi euro eta gastuetan, aldiz, 21 milioi, eta horiek berdinak izan beharko lukete.

Joseba Aranburu señala que, en el informe de gestión organizativa, en la gráfica, consta en los datos de control presupuestario y control de ejecución que los ingresos alcanzan los 22 millones de euros y en los gastos únicamente consta 21 millones, y en principio deberían ser los mismos.

Alkateak adierazten du honakoa: hor gertatzen da ez dutela koinziditzen onartutako gastuak eta sarrerak, berez aurrekontu luzatuak direla eta sarrerak eguneratu egin direlako ordenantza fiskalak direla eta. Horregatik une honetan ez dute kointziditzen.

El alcalde señala que lo que ocurre es que no concuerdan los gastos e ingresos actualmente, puesto que estamos ante un presupuesto prorrogados, y los ingresos se han actualizado con motivo de las ordenanzas fiscales. Por eso en este momento no coinciden.



Ordiziako Udala

2025ITGB0011

Joseba Aranburuk honakoa adierazten du: aurreko TGBan galdetu nuen grafika hori den orain arteko gastua edo urte osoko gastua den. Baina galdera ni erantzun nintzen, eguneratzen joaten delako, beraz ez da urte osokoa orduan. Hala ere, urte osokoa jakitea interesgarria da.

Joseba Aranburu señala lo siguiente: «En la JGL anterior pregunté si esa gráfica es en relación con el gasto efectuado hasta ahora o si es un gasto de todo el año. Pero la pregunta la respondí yo, porque se va actualizando, así que no es de todo el año entonces. Sin embargo, es interesante saber el cómputo de todo el año.»

Maitane Alvarez azaltzen du: aurrekontuaren garapena ikusten da grafikan, ez dakigu, baina uste dut orain arte egindako gastua islatzen duela.

Maitane Álvarez explica: «Se ve en la gráfica el desarrollo del presupuesto, no lo sabemos, pero creo que refleja el gasto realizado hasta ahora.»

Alkateak adierazten du: hemen ere fintzen gabilitza, eta plan ekonomikoa dela eta kontrola gehitu nahi zen. Zorionez ez dugu egin beharrik baina kontrola egin nahi dugu, eta sailen gainean gaude beraien ardurapeko partiden jarraipen zehatza egin behar dutela esanez. Bestalde, Hondarribiko kontuhartzaileak baiezkota eman digu, eta horretan gaude. Baina uztailak 1etik aurrera gurekin izango da metaketan.

El alcalde señala: «En esta área también estamos afinando, y atendiendo a que debíamos hacer el plan económico se quería añadir un férreo control. Afortunadamente no tenemos que elaborar el plan, pero seguimos queriendo hacer un control y estamos encima de los departamentos diciendo que tienen que hacer un seguimiento exhaustivo de las partidas a su cargo. Por otro lado, el interventor de Hondarribia nos ha dado el sí, y en eso estamos. Por lo tanto, a partir del 1 de julio estará con nosotros en acumulación.»

Joseba Aranburuk galdetzen du honakoa: kontratu txikietan batzuetan BEZa zero da, horrek zer adierazi nahi du?

Joseba Aranburu pregunta: «En los contratos menores a veces el IVA es cero, ¿eso qué quiere decir?»

Alkateak erantzuten du irabazi asmo gabeko elkarte batzuk BEZa salbuetsia dutela, eta horregatik kopurua zero dela.


El alcalde responde que hay asociaciones sin ánimo de lucro que tienen exento el IVA, por lo que la cantidad es cero.

Julen Iraolak honakoa galdetzen du: kudeaketa txostenean adierazten denez, Oianguko txiringitora ez da inor aurkeztu. Pausorik eman behar da honen inguruan?

Julen Iraola pregunta: «En el informe de gestión se indica que al chiringuito de Oiangu no se ha presentado nadie. ¿se va a dar algún paso al respecto?»

Alkateak honakoa erantzuten dio: iaz jada kanona kendu egin genuen, eta neurri hori hartuta ere ez zen inor

El alcalde le contesta: «El año pasado ya retiramos el canon y ni siquiera tomando esta medida se presentó nadie. Este año



Ordiziako Udala

2025ITGB0011

aurkeztu. Aurten ere ez da inor aurkeztu, baino egia da obretan daudela. Beraz, udarako pentsatzen gabilta Foodtruck edo izozki zerbitzua lortzeko aukerarik izango genukeen. Hau da, zerbitzu minimo bat ematerik ea dagoen, eta hori lortzerik dugun.

tampoco se ha presentado nadie, pero es verdad que están en obras. Así que estamos pensando para el verano si podríamos conseguir algún servicio de Foodtruck o el servicio de heladero. Es decir, estamos intentando a ver si se puede dar un servicio mínimo y si se podría conseguir.

Maitane Alvarez adierazten du lehiakortasun desleiala eman ez dadin, Ordiziako festatan izena eman duten 16 horiei, eguneko zozketak egiten ditugula aintzat izan eta hori ere aldatu nahi dugu beste herrietan bezala lau aukeratuz eta festa guztietan egon daitezen, eskaini nahi diegu Oiangu. Ea interesa dute larunbata eta igandetan, eta ostiraletan ere nahi badute, etortzeko. Baina ondo egin behar da beraien artean liskarra ez egoteko, eta zozketa egin beharko da.

Maitane Alvarez señala que «para que no se dé una competitividad desleal entre ellos, a esos 16 inscritos en las fiestas de Ordizia, (teniendo en cuenta que hacemos sorteo para que puedan estar en fiestas por día, situación que queremos cambiar aplicando lo que otros pueblos llevan a cabo, es decir, hacer sorteo, elegir a cuatro, y que estén todos los días de fiestas no por días) queremos ofrecerles Oiangu. A ver si están interesados en dar servicio los sábados y los domingos, y si quieren también los viernes.. Pero hay que hacerlo bien para que no haya enfrentamiento entre ellos y habrá que hacer un sorteo.

17:14 direnean Ainhoa Jimenez zinegotzia bertaratzen da.

A las 17:14 horas se persona la concejala Ainhoa Jiménez.

Julen Iraolak adierazten du honakoa: web orrialdeko sare sozialetan sartzeko ezarrita dauden goiko botoiak ez daude ondo, zeren profil zaharretara eramaten gaituzte, esteka erorietara alegia.

Julen Iraola señala lo siguiente: «Los botones superiores establecidos para acceder a las redes sociales de la página web no están bien, porque nos llevan a los perfiles antiguos, y son enlaces caídos.

Ana Sanchez honako hau esan du: nik lau gai nituen.


Ana Sánchez comenta lo siguiente: yo tenía cuatro temas.

1.- Interes handia dugu tigre-eltxoaren problematikarekin. Inkesta bat bidaliko dela esan digute, eta gaia nola dagoen jakin nahi dugu.

1.- tenemos bastante interés con la problemática del mosquito tigre. Se nos comentó que se enviaría una encuesta, y queremos saber cómo está el tema.

Maitane Alvarez erantzuten du honakoa: inkesta udaleko langileek bete zuten, eta Osakidetza igorri genuen. Baina inkesta ez da herritarrei igorri, Rosak eta Ricardok erantzun zuten. Gero kanpaina dena etorri da atzetik, hau da,

Maitane Alvarez responde: «La encuesta fue cumplimentada por personal del ayuntamiento y remitida a Osakidetza. Pero la encuesta no ha sido remitida a la población, respondieron Rosa y Ricardo. Luego la campaña ha venido a posteriori, es decir, después se ha desarrollado todo.



gero dena garatu da.

Anak galdetu du: Haiek jarri al dituzte tranpak? Ba al dakigu teknikariek zer erantzun zuten?

Maitanek adierazten du Rosari adieraziko diola eta igorriko dela, baina guk ere ez genuen eskatzen zuten informazioa. Gai hau ez zegoen landuta udaletxetik, liztor beltza bezala, ezer ez genekien eta ez dugu inoiz horren jarraipenik egin. Tranpak jarri dituzte, eta koordinadak jartzen dabiltza. Gehienbat Barrena parkean eta hilerrian, zeren zaurgarrien diren lekuak baitira, eta gero emaitzak igorriko dizkigute.

2.- Gizarte egoeran egotearen memoria eskatzen dugu

Ainhoa Jimenezek honakoa dio: aurreko bileran komentatu genuen, Jonek aurtengoa amaitu gabe zutela adierazi zuen. Amaitzean ekarriko dute, eta aurkezpena egitea nahi bada egingo da. Gainera USB bidez ere igortzeko aukera zabaltzen da.

3.- Merkatariren batekin hitz egin dut eta kezkatuta daude Foruen Pasealekua ixtearekin. Batzuek larunbatetan merkataritza-ordutegian ez ixtea planteatzen zuten, eta kezkatuta daude saltokietatik hurbilen dauden aparkalekuekin, ez baitakite kenduko dituzten ala ez. Plan bat berehala egitea pentsatu duzue, positiboa izango litzatekeelako merkatariei zabaltzea, guztiok parte har dezagun.


Ana pregunta: ¿las trampas las han puesto ellos? ¿podemos saber lo que respondieron los técnicos?

Maitane indica que se lo solicitará a Rosa y se remitirá, «pero nosotros tampoco teníamos la información que pedían». Este tema no estaba desarrollado desde el Ayuntamiento, como la avispa negra que sí se desarrolló, no sabíamos nada y nunca hemos hecho un seguimiento de ello. Han puesto trampas y están poniendo coordenadas. Principalmente en el parque Barrena y en el cementerio, ya que son los lugares más vulnerables y luego nos remitirán los resultados.

2.- Solicitamos la memoria de bien estar social

Ainhoa Jiménez comenta lo siguiente: «Ya lo comentamos en la anterior reunión, Jone señaló que no tenían terminada la de este año. La traerán al finalizar y se hará si se quiere que se haga la presentación. Además, se abre la posibilidad de remitir vía USB.

3.- He estado hablando con algún comerciante y están preocupados con el cierre de Foruen pasealekua. Algunos planteaban no cerrar los sábados en el horario comercial, y están preocupados por esos aparcamientos más cercanos a los comercios, porque no saben si se van a retirar o no. Tenéis pensado hacer algún plan muy de inmediato, porque sería positivo abrirlo a los comerciantes para que participáramos todos.



Ordiziako Udala

2025ITGB0011

Maitane Alvarezek adierazten du: Aitorrekin behin eta berriz hitz egin dut gai hau. Hasieran kexak egon ziren eta galdeketa egiteko eskatu nion. Galdeketa elkarteen artean egin zuen, lagin bat ateratzea aldera, baina 90 bazkide badira 34 inguruk erantzun zuten. 22 alde ateratzen ziren, eta 14ri ez zitzaion axola. Beraz, proportzioa kontutan hartzen bada, ez da horrenbestekoa. Eta zuzendaritzak idatzirik ez sartzea erabaki du, eta ordutegia berrikusteko prest geundenez guk eskatu genien idatzia sartzea. Guk planteatzen dugu ordutegi bat udarako eta beste bat negurako, baina erabakitzeke dago. Hasieran kexa ugari zeudela zirudien, baina gero ez da horrela izan. Frogak egiten gaude, eta azken asteetan ez dugu inolako kexarik jaso, nahiz kezkaturik daudela badakigun. Parking-ak bere horretan mantenduko ditugu. Etorkizunean, altura berdinean jartzen dugunean ikusiko dugu nola egin, noski autoak pasa ahal izango dutela, baina araututa izango da oinezko gunea delako, eta jendea ohitzen joan beharko gara. Irekita gaude proposamenak jasotzeko.


Alkateak dio: urte hasieratik, orain gutxi, semaforoarena jakinarazi dela. Eta udaltzainak asteburuetan ixten ibili dira, eta ez da inolako triskantzarik sortu. Egun ez dago oinezko biderik aurreikusita, baina bai ikusten da gutxienez arboleda paretik Olano bitartera plataforma bakarra izatea. Aparkaleku horiek hor izango dira, baina gerora ikusiko da nola egin oinezkoak bidean ez daitezen ibili.

Joseba Aranburuk adierazten du: badakit kartelekin zabiltzatela, baina jendeak uste du itxita dagoela une oro. Semaforoa laranja dago, baina kezka

Maitane Álvarez señala: «Con Aitor he hablado en repetidas ocasiones sobre este tema. Al principio hubo quejas y le pedí que preguntará sobre el tema. El sondeo se realizó entre asociaciones, a fin de extraer una muestra, pero si son 90 los socios respondieron unos 34. Salían 22 a favor, y a 14 no les importaba. Por consiguiente, si se tiene en cuenta la proporción, no es tanta. Y la dirección ha decidido no incluir ningún escrito, aun solicitándolo por nuestra parte porque estábamos dispuestos a revisar el horario. Nosotros planteamos un horario para el verano y otro para el invierno, pero está por decidir. Al principio parecía que había muchas quejas, pero luego no ha sido así. «Estamos haciendo pruebas y en las últimas semanas no hemos recibido ninguna queja, aunque sabemos que están preocupados. Mantendremos los párquines intactos. En el futuro, cuando lo pongamos a la misma altura veremos cómo hacerlo, claro que podrán pasar coches, pero será regulado porque es una zona de viandantes, y tendremos que ir acostumbrando a la gente. Estamos abiertos a recibir propuestas.

El alcalde dice: «Recientemente, desde principios de año, se ha comunicado lo del semáforo. Y la policía municipal ha estado cerrando los fines de semana y no se ha producido ningún tipo de destrozos. En la actualidad no está previsto ningún vial peatonal, pero sí se prevé que al menos entre la arboleda y Olano exista una única plataforma. Estos aparcamientos estarán ahí, pero más adelante se verá cómo hacer para que los peatones no circulen por la vía de coches.

Joseba Aranburu señala: «Sé que andáis con carteles, pero la gente piensa que está cerrada en todo momento. El semáforo está en ámbar, y preocupa.



sortzen du.

Maitane Alvarez erantzuten du arduradunari ordutegia jartzeko eskatu diola.

Maitane Alvarez responde que ha pedido al responsable que ponga visible el horario.

Julen Iraolak adierazten du: Gudarien Etorbidearen buelta horretan proposatzen dugu, Etxezarreta altuan altxa dutenean zementua jarri dute, ez dute asfaltoa ezarri beraz bi egunetan izorratuko zaigu.

Julen Iraola indica: «Proponemos en esa vuelta de Gudarien etorbidea, hemos observado que en el alto de Etxezarreta se ha puesto cemento, en vez de asfalto, y creemos que en unos días se estropeará.

Alkateak erantzuten du behin-behinekoa dela.

El alcalde responde que es provisional.

Eta Julenen Iraolak proposatzen du, Barrena eta Olano artean, oinezkoentzako ezarrita dagoen aldean, eta Urak-ek altsatu duenez, ea zuhaitzen bat jartzeko aukerarik den.

Julen Iraola, propone, entre Barrena y Olano, en la zona peatonalizada, y visto que Urak lo ha levantado todo, estudiar la posibilidad de colocar algún árbol.

Ana Sanchezek honako hau galdetu du: nola dago hirigintza-plangintzako aholku-batzordea?

Ana Sánchez pregunta lo siguiente: como se encuentra el consejo de asesor de planeamiento urbanístico.

Alkateak adierazten du Udalbatzan erantzungo duela, sartu duzu mozioari erantzungo diot.


El alcalde indica que responderá en el Pleno, puesto que ella ha presentado una moción en relación con este tema.

Julen Iraolak adierazten du: jasangarritasunean ere esan genuen, ea Adifeko obran presioa sar daitekeen jarritako korredorea edo tejabana luzatzea, eta tapatzeko aukera aztertzea, inor busti ez dadin.

Julen Iraola señala: «También lo dijimos en sostenibilidad, a ver si se puede meter presión en la obra de Adif para que alarguen el corredor o la tejabana colocada, y estudiar la posibilidad de tapar para que nadie se moje.

Alkateak komentatzen du: txertatzeko aukerarik ez dagoela, zero, obra beraiena delako. Babes lekuak jarri arren ez da nasa dena babestu. Bai planteatu da gaur egungo portikoa, eta beste aldean gela handi bat ere prestatu dago eta babes leku jartzea pentsaturik dute. Hobekuntza nabarmenak egin dira, baina gehiago egin zitezkeen. Gero triangelu

El alcalde comenta: «Que no hay posibilidad de añadir nada, cero, porque la obra es de ellos. A pesar de poner esos lugares de refugio, no se ha optado por proteger todo el andén. Si se ha planteado el pórtico actual, y al otro lado también se ha habilitado una gran sala y se ha pensado habilitar un espacio de protección. Se han hecho mejoras notables, pero se podían haber



Ordiziako Udala

2025ITGB0011

bat utziko digute txirrinduentzako aparkamendua jartzeko, baina guk egin beharko dugu. Eta borrokatzen egon naiz, Eroski biderako zebrabidea beraiek margotu dezaten.

Julen Iraolak ere adierazten du: Plaza Nagusia eraberritu ondoren, ikusi ditugu pitzadura ugari Pottoka aldera eta abar. Hauek erreklamatzeko aukeran eta epean gaude?

Alkateak adierazten du erreklamaturik dagoela, baina pintadak ezin ditugu erreklamatu. Pintadan inguruan ikastetxeek egin zuten festak direla eta, horren ingurukoak argitzeke ditugu. Ez badira arauak errespetatzen agian ezingo da erabili. Orain festetan umeen egunarekin ea zer gertatzen den. Bestalde, berezkoa da elementu horiek ez direla, jatorriz horrela baitira, gogorrak eta asko sufritzen dute. Koloreak ere horregatik erabaki ziren, goiko txuria mantentzeko behean grisa jarri zen.

Julen Iraolak puntu positibo bezala adierazten du loreetan lan ona egin dela, Olano, Altamira, eta abarretan eta zoriontzekoa dela.

Alkateak adierazten du lorezain buru berria dagoela, eta bere aldetik asko jartzen ari dela, eta Maitane ere atzetik dagoela.

Maitane Alvarezek adierazten du: gune askotan mozteko falta zaigu, eta praktiketan pertsona hasi zen eta dirudienez lorezain lanak ezin ditu alergiatara zaiolako. Baina Itoitz hasi da lanean, eta Peio taldea osatzen dabil. Baina belargune asko ditugu egiteko.

Julenek esaten du bi altueratan moztea interesgarria dela.

hecho más. Luego nos dejarán un triángulo para poner aparcamiento para las bicicletas, pero tendremos que hacerlo nosotros. Y he estado luchando para que ellos pinten el paso de cebra hacia el vial de Eroski.

Julen Iraola señala también: «Tras la reforma de Plaza nagusia, hemos visto numerosas grietas hacia el Pottoka, etcétera. ¿Estamos en plazo y posibilidad de reclamar?»

El alcalde indica que «está reclamado, pero las pintadas no las podemos reclamar. Con motivo de las fiestas que celebraron los centros escolares queda aclarar que ha ocurrido con las pintadas. Si no se respetan las normas quizá no se pueda utilizar para esos actos la plaza. Ahora con el día de los niños, en las fiestas, a ver qué pasa. Por otra parte, atendiendo a que estos elementos por naturaleza no son tan duros, sufren mucho. Los colores también se decidieron por eso, para mantener al blanco superior se puso gris abajo.

Julen Iraola señala como punto positivo que «se ha hecho un buen trabajo en jardinería y con las flores, en Olano, Altamira, etc. y es de felicitar.

El alcalde indica que «hay un nuevo jefe de jardinería, que está poniendo mucho de su parte, y Maitane también está por detrás.

Maitane Álvarez señala: «Nos falta por cortar en muchas zonas los jardines, y cabe indicar que comenzó un chico en prácticas pero que al parecer no va a poder trabajar de jardinero nunca porque se ha dado cuenta que es alérgico. Pero Itoitz ya ha empezado a trabajar, y Peio está formando el equipo. Aunque tenemos muchas zonas por adecentar.

Julen dice que le resulta interesante podar en dos alturas.



2025ITGB0011

Joseba Aranburuk adierazten du erleen inguruko bideoa igorri zaizuela, eta ea zerbait egin den horren inguruan.

Joseba Aranburu señala que se les ha enviado un vídeo sobre las abejas y pregunta si se ha hecho algo al respecto.

Bideoa ez dute zinegotzi denek ikusi, eta hori aztertzekotan geratu dira

El video no se lo han visualizado, queda pendiente de estudio.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la secretaria, certifico.

Sinatzaileak Firmantes	IDAZKARIA / SECRETARIA Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave
	Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAARTFQ7.jsUw